

PEDIATRIA SAILA
DEPARTAMENTO DE PEDIATRIA



8. MINTEGIA. Sukar sindromea

Sukarra, pediatrian, kontsulta arrazoi oso ohikoa da. Etiologiarik ohikoena infekzio birikoak dira baina batzutan, sukarra, bakterioengatiko infekzio larri baten adierazle bakarra izan daiteke. Hau dela eta, paziente hauen hurbilketa diagnostiko-terapeutikoa ezagutzea garrantzitsua da bakterioengatiko infekzio bat pairatzeko arrisku gehien daukatenak identifikatzeko.

Gaiaren edukia:

1. Kontzeptuak: sukarra, fokurik gabeko sukarra, ezkutuko bakteriemia, bakterioengatiko infekzio larria, bakterioengatiko infekzio inbasiboa.
2. Fokurik gabeko sukarra duten pazienteen etiologiarik ohikoena eta adin-talde ezberdinen araberakoa.
3. Itxuraren, txertaketaren, adinaren, sukar graduaren eta fokuaren garrantzia.
4. Azterketa osagarriak, indikazioak eta beraien interpretazioa.
5. Fokurik gabeko sukarra duen pazientearen hurbilketa diagnostikoa, adin-talde ezberdinen arabera:
 - a. < 3 hilabete
 - b. 3-24 hilabete
6. Maneu terapeutikoa.